

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3273

*AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik (L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).*

EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dauzkan helburuak lortuko baditu. Zehazki, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta berau Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 29. artikuluan xedatzen da gurasoek edo legezko tutoreek eskubidea dutela haurren eta nerabeen eskolako hezkuntzaren jarraipena egiteko eta hartan parte hartzeko.

EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planak lerro estrategikoak zehazten ditu euskal hezkuntza-sistema osoazuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko funtsezko zat jotzen diren alderdiak antolatzeko. Lehenengo lerro estrategikoak (L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza) nahitaezko zat jotzen du hezkuntza-komunitate osoa (irakasleak, zuzendaritza-taldeak, irakasle ez diren langileak, eta familiak) prestatzea. Eta, familiei dagokienez, beren prestakuntza eta parte-hartzea funtsezko kate-mailatzat jotzen ditu hezkuntzaren arrakastaren ekuazioan. Bigarren lerro estrategikoak (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta) zehazten du nola erantzun behar dion gizarteak, eta derrigorrezko hezkuntzak, horren parte den aldetik, aniztasunari; praktikan, hezkuntza-erantzunaren ardatza aukera-berdintasuna duen kalitatezko hezkuntza batera eraman behar da, guztiontzat bidezkoa eta ekitatiboa izango dena.

Hirugarren lerro estrategikoak (L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan) euskararen gainean ezarriko du hezkuntza eleaniztunaren ardatza, bi hizkuntza ofizialen arteko egungo desoreka gainditzeko –gaur egun gaztelaniaren aldekoa baita– eta bi hizkuntzen arteko berdintasun soziala eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko. Laugarren lerro estrategikoak (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) nahitaezko ikusten du teknologia digitala sartzea, ikasketa-metodologia eraldatzaile batetik abiatuta.

Beraz, heziketa integrala lortzeko, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean definitutako ildo estrategiko horiei lotutako prestakuntza-jarduerak eta jarduera osagarriak garatu behar dira. Eta hori, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera eraturako elkarten parte-hartzearekin baino ez da posible egiten; hala nola, Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarten eta adin txikiko ikasleen gurasoen partehartzea.

Halaber, aipatutako dekretuaren 29.5 artikulua hau ezartzen du: familiek parte har dezaten eta elkarlana egon dadin ikastetxeen eta familien artean, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izango dituzte gurasoentzat eta legezko tutoreentzat, betiere inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegitik.

Parte-hartze horrek, ordea, gastu handiak eragiten dizkiete legeak ezarritakoaren arabera eraturako erakunde guztiei, eta, beraz, sistemak berak lagundu egin behar die partaidetza hori gauza dadin.

Beraz, agindu honen bidez laguntzak emateko deialdia egiten da Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteak egon daitezen sustatzeko, bai eta elkarte horiek antolatzen dituzten jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak partez ordaintzeko ere.

Laguntza horietarako dauden baliabideak mugatuak direnez, guztira eman daitezkeen laguntzen zenbatekoa elkarte dagoen ikastetxearen bekadun-kopuruaren arabera izango da, eta kontuan hartuko da, baita ere, zentro hori sare publikoan edo itunduan dagoen; bi faktore horiek kolektibo babestuaren egoera sozio-ekonomikoaren adierazle argiak dira.

Era berean, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako osasun-krisiak ikastetxeen funtzio-namendu normala nahastu duela eta, bereziki, eragin handia izan zuela Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako (HHI) ikasleen elkarteek eta ikasleen guraso-elkarteek 2020. urtean programatutako jarduerak betetzean, 2021. urteko jardueren plangintzak irakaskuntza ez-presentzialera egokitzea kontuan hartu behar du.

Ondorioz, salbuespen gisa eta 2021eko deialdirako, prestakuntza-jarduerak justifikatzeko euhnekoa egokitu da, 50etik 30era.

Hori dela eta, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluan jasotako xedapenetan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzak emateko moduari buruzkoa– ezarritakoaren arabera, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko araudia betez –zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua–, eta oro har aplikatu behar diren gainerako xedapenekin bat etorritik, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, laguntzak emateko deialdia egiten da 3. artikuluan aipatzen diren jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko. Ekintza horiek 4. artikuluan aipatzen diren erakunde onuradunek 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 23ra egiteko dira.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Helburu horretarako, bostehun mila (500.000) euroko kreditua esleitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan 2021. urterako.

##### 3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hezkuntza Sailak, deialdi honen bidez, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren ildo estrategikoei lotutako prestakuntza sustatzen du, ikuspegi inklusibo eta hezitzaile batetik, eta batez ere, ildo hauekin lotutakoa:

IE 1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza.

IE 2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta.

IE 3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan.

IE 4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak.

Inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia zera da: proposatzen diren ekintzetan kontuan hartuko dela ikasleetan dagoen aniztasuna (generoa, kultura, hezkuntza-behar espezifikokoak eta bereziak), bai eta haren familietan dagoena ere, eta behar diren neurriak hartuko direla ikasle guztiek parte hartu ahal izan dezaten ekintza horietan.

1.– Agindu honetako laguntzak helburu hauek betetzeko dira:

a) Prestakuntza-jardueren gastuetarako (prestakuntza-jardueraren kostua): ikastaroak, mintegiak, tailerrak, barnetegiak; antolaketa-gastuetarako (hizlariaren joan-etorriak, osatu-hartzeak eta otorduak, lokalen alokairua, prestakuntza-jarduerari lotutako materialak), baldin eta Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planeko lerro estrategikoei lotuta badaude, eta inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegitik diseinatu eta garatuko dira, eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzenduta egongo dira. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

b) Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteek eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek funtzionatzeko beharrezkoak diren ekintzetarako eta azpiegitura-gastuetarako (langileen nominak, hornidurak, alokairuak). Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

c) Jarduera osagarrien gastuetarako (irteerak, txangoak, topaketak). Jarduera horiek Hobe-kuntza Planaren lerro estrategikoei lotuta egongo dira, inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegitik diseinatu eta garatuko dira, eta ez dira izango a) atalean dauden jarduerak, horiek ere unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzenduta egon arren. Gehienez ere jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da (lokalen alokairua, jarduera osagarriari lotutako materialen erosketa).

2.– Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuek eskatutako zenbatekoaren % 30 edo gehiago izan beharko dute (salbuespen gisa, COVID-19ak sortutako egoeratik). Azken justifikazioan, ikasleen eta/edo gurasoen prestakuntza-jardueren gastuak justifikatutako gastu osoaren % 30 edo gehiago izan beharko du.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Erakunde hauek deialdi honetan parte hartu eta dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleenak soilik direnak izan ezik.

Elkarte horiek federazioren batean badaude, federazio horrek elkarten ordezkari gisa jardun dezake, baldin eta izapidetze elektronikorako sarrera izateko bi aldeek sinatutako ordezkari-tza eman bazaio federazioari (V. eranskina) «Ordezkaritza ematea».

Bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan jarduteko ordezkari-tza beste pertsona bati ematen zaionean, alta emanda egon beharko du ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

5. artikulua.– Proiektuen betekizunak eta egiaztapena.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan azaldutako egoeretako batean dauden erakundeak ezingo dira onuradun izan.

2.– Erakunde horiek legez eratuta, inskribatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan alta emanda egon beharko dute. Ofizioz egiaztatuko da hori, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte, bai onuradun bihurtzen direnean, bai ordainketak egiten direnean.

3.– Era berean, ez dute izan beharko dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dien zigor administratibo edo penalik, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenarekin bat.

4.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko laguntzak eskatzen dituzten erakundeek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Erakunde eskatzaileak aurka egin ahal izango du, arrazoiak emanez, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 eta 50.6 artikulua aplikatuta (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hura), eskabidean dagoen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez honako hauek egiaztatuko dira:

a) Edozein administraziori edo erakunde publiko zein pribaturi xede bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, jaso izanez gero, jaso direla.

b) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

c) Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

d) Eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo/ eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan, baldintza hori dirulaguntzaren likidazioa egin arte mantendu behar da.

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea. Baldintza hori dirulaguntzaren likidazioa egin arte mantendu behar da.

6.– Betebeharrak ebazpena eman aurretik egiaztatuko dira, bai beharrezko egiaztagiria erakutsiz, bai organo kudeatzaileari betebeharrak zuzenean egiaztatzeko baimena emanez.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta epeak.

1.– Erakunde eskatzaileek «Eskabidea» (I. eranskina) eta «Gastuen aurrekontua» izeneko inprimaki normalizatuak (II. eranskina) aurkeztu beharko dituzte, behar bezala beteta. Halaber,

administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu dioten erakundeek (laguntza hori eman bazaie edo oraindik ebazteko badago) «Beste finantzaketa-iturri batzuk» inprimakia (III. eranskina) aurkeztu beharko dute. Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskabide-formulariora sartzeko erabiltzen dena, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0043809>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta epemugako hilabetean amaituko da, argitalpena egin zen egun berean. Baldin eta epemugako hilabetean ez badago egun baliokiderik, epea hilaren azken egunean amaitzen dela ulertuko da, eta, hilaren azken eguna baliogabea bada, epea luzatu egingo da lehen egun baliodunera.

3.– Dokumentazioa modu elektronikoan aurkeztu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/ampas/web01-tramite/eu/>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete dokumentazioa, beraiek nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

5.– Ikasleen gurasoen elkarte batek ofizialki onartutako bi zentrotan badihardu, bi eskabide egingo ditu; zentro bakoitzeko bat. Zentro batean bi eskabide baino gehiago badaude, ikasleen gurasoen elkartenak nahiz irakaskuntza-elkarte eta kooperatibenak, eskatzaile bakoitzak adierazi beharko du ikasleen zer ehunekori ematen dion zerbitzua, «Gastuaren aurrekontua» izeneko inprimaki normalizatuan.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honen izapide guztiak elektronikoki egingo dira.

2.– Izapidetze elektronikoa Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dute.

3.– Eskabideak aurkezteko eta gainerako izapideak egiteko argibideak eta erabili beharreko ereduak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0043809>

4.– Eskaeraren ondorengo kontsultak eta izapideak egoitza elektroniko horretako «Nire Karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

1.– Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik beteta, edo ez bada aurkezten nahitaezko agiri guztiekin batera, erakunde interesdunari hauxe eskatuko zaio: hamar egun balioduneko epean, akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Epe horretan eskabidea zuzendu ez bada, ulertuko da eskabidea bertan behera utzi dela.

2.– Jakinarazpena burututzat joko da interesdunak jakinarazpena jaso izanaren agiria elektronikoki sinatzen duenean.

3.– Jakinarazpen elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat hartuko da, eta izapidea gauzatutzat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

4.– Aurreko puntuan esandakoa alde batera utzi gabe, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpen-abisuak bidali ahal izango dizkie, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

9. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu eta «dirulaguntzak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Hezkuntzaren Berriztatzea finantzatzea eta laguntzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Orokorra.

– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>)

10. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzeko organoa.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diren laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

11. artikulua.– Elkarteentzako laguntzak zenbatzeko prozedura.

1.– Laguntzen banakako zenbatekoa zehazteko, artikulua honetan ezarritako banaketa-sistema aplikatuko da. Zenbateko hori ez da inola ere izango elkarte horietako bakoitzak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa. Era berean, 3. artikuluan ezarritako diruz lagun daitezkeen jardueren mugak errespetatu behar dira.

2.– Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) 162 euroko hasierako laguntza esleituko zaie onartutako eskabide guztiei.

b) Jarraian, elkarte bakoitzari esleituko zaio bi puntuazio hauen batura:

I) Diharduen zentroetako ikasle-kopuruagatik dagokion puntuazioa. Elkarte bakoitzari duen ikasle-kopuruaren araberrako puntuak emango zaizkio, eskabidea aurkezteko epea bukatzen denean dagoen dokumentazio estatistiko ofizialari jarraikiz.

II) Zentroko bekadun-kopurua bider 3 egitearen ondorioz ateratzen den puntuazioa, eskabidea aurkezteko epea bukatzen denean dagoen dokumentazio estatistiko ofizialari jarraikiz. Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako elkarteen kasuan, aurreko puntuazioa berriro bider 2 egingo da, eta elkarteak parte hartzen badu zentroko Hamaika Esku programan, berriro ere bider 2. Hamaika Esku programa, ikastetxe publikoetan egindako kanpo-ebaluazioetan lortutako emaitzetan oinarriturik, desabantaila sozial, ekonomiko eta kulturean dauden ikasleen emaitzak hobetzera eta hasierako mailan daudenen ehunekoa murriztera bideratuta dago.

Zentro bati ez zaio inola ere emango bi puntuazioen batura baino puntuazio altuagorik.

c) Deialdiaren zenbatekoari (500.000 euro) hasierako laguntzen zenbatekoa kenduko zaio. Kenketa horren emaitza izango da banatu beharreko soberakina.

Banatu beharreko soberakin hori elkarte guztiei emandako puntu guztien baturarekin zatituko da, eta zatiketa horren emaitzarekin biderkatuko da elkarte bakoitzari esleitutako puntuazioa.

d) Lortutako zenbatekoari hasieran emandako 162 euroko laguntza gehituko zaio, elkarte bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehazteko.

12. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak batzorde bat izendatuko du, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko. Hauek osatuko dute batzordea:

a) Aniztasunari Erantzuteko Zerbitzuaren zuzendaria edo hark izendatzen duen ordezkaria: batzordeburu jardungo du.

b) Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Hezkuntza Berriztatzeko programen arduradun bat.

c) Aniztasunari Erantzuteko Zerbitzuko ordezkari bat; idazkari jardungo du.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak emango du, sei hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideei dagokiernez, erakunde onuradun bakoitzari emandako laguntzen zenbatekoa adieraziko da, edo, hala badagokio, laguntza ukatzeko arrazoiak.

2.– Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak.

3.– Aurreko puntuan esandakoa alde batera utzi gabe, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpen-abisuak bidali ahal izango dizkie, SMSak edo mezu elektronikoa igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikotara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

Gainera, dirulaguntzen ebazpena EHAAn argitaratuko da, jende guztiak jakin dezan.

4.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatuarekin bat.

5.– Artikulu honen lehenengo apartatuan aipatutako epea igarota, ebazpena onuradunei jakinarazten ez bazaie, dagokion eskabidea ezetsi egin dela uler dezakete onuradunek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

14. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak bateragarriak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, beste edozein administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bidez lor daitekeen beste edozeinekin, betiere laguntza guztien baturak ez badu gainditzen laguntza honen xede den gastuaren % 100. Kasu horretan, soberakinari dagokion zenbatekoan murriztuko da deialdi honen arabera dagokien zenbatekoa.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotakoak (finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak ere hartu beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikuluen 3. eta 4. apartatuetan jasotakoarekin bat etorritik):

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) ezarritakoak:

a) Jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Laguntza eman dien erakundeari justifikatzea baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela, bai eta laguntza ematea edo laguntzaren onura jasotzea ekarri duen jarduera egin dutela ere.

c) Dirulaguntza ematen duen administrazioak egiaztatzeko egiten dituen jarduketak egiteko laguntza ematea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketetarako ere.

d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea dirulaguntza eman duen erakundeari.



e) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar objektibo edo subjektibo aldatu bada, horren berri ematea dirulaguntza eman duen erakundeari.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, jakinarazpenaren osteko hamabost eguneko epean ez bada berariaz eta idatziz uko egiten, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da.

4.– Diruz lagundutako jardueren ondorioz sor daitezkeen arriskuak bere gain hartzea eta arrisku horiek estaltzeko aseguruia egitea.

16. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Agindu honen babesean emandako laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengoa, dirulaguntzaren % 75, emandako laguntza onartu ondoren.

b) Gainerako % 25a, berriz, «Gastuaren justifikazioa» izeneko inprimaki normalizatua (IV. eranskina) behar bezala beteta aurkeztean ordainduko da. Inprimaki horrekin batera, onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa edo handiagoa osatzen duten fakturak eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori aurkezteko epea 2021eko abenduaren 23an amaituko da, egun hori barne.

2.– Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak emandako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

3.– Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izanagatik, horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuraduneri dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

17. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

1.– Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0043809>

2.– «Gastuaren justifikazioa» izeneko inprimaki normalizatua aurkeztuko da (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0043809>, behar bezala beteta, eta fakturekin eta ordainagiriekin batera.

3.– Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak dirulaguntza justifikatzeko jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

4.– 2. artikuluan aipatutako zenbatekoarekin lotura duten gastuek zuzeneko harremana izan behar dute antolatutako ekintzekin edo erakundeak antolakuntza eta funtzionamendu arloetan dituen ohiko gastuei erantzun behar diete.

5.– Laguntza horiek prestakuntzakoak eta osagarriak direnez, fakturek eta ordainagiriekin haien edukiarekin bat datorren justifikazio-balioa izango dute, eta blokeka aurkeztu beharko dira, eskala honen arabera:

a) Balioaren % 100 unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuei dagokienez. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

b) Balioaren % 100 gastu hauei dagokienez: Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteek eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek funtzionatzeko beharrezkoak diren azpiegituren gastuak eta jarduera-gastuak. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da, gehienez ere.

c) Balioaren % 50 gastu hauei dagokienez: jarduera osagarrien gastuak –17.5.a) artikulukoak ez direnak–; jarduera horiek unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzenduta daude. Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

6.– Unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren justifikatutako gastuak guztira justifikatutako gastuaren % 30aren bestekoa edo hortik gorakoa izan beharko du.

18. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, esaterako, emandako dirulaguntzaren gastua behar bezala justifikatu gabe badago, ebazpena aldatu ahal izango da, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxienerako baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Hezkuntza Aniztasunerako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoak egokituko dira, horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta laguntza jasotzen dutenek itzuli egin beharko dituzte soberan jasotako zenbatekoak.

2.– Emandako dirulaguntza adierazitako epeetan justifikatzen ez bada, edo emandako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoa justifikatzen bada, dagokion ez-betetze prozedura abiaraziko da, eragindako zenbatekoari dagokionez, eta, hala badagokio, laguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

19. artikulua.– Ez-betetzearen araubidea.

1.– Dirulaguntzen pertsona onuradunek, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta –Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz– honako kasu hauetan, berriz, eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, osorik edo partez, baita aplikatu daitezkeen legezko interesak ere (berandutze-interesa barne dela):

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorren 37. artikuluan 1. apartatuan jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikulutik 93. artikulura bitartean jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik.

b) Erakunde onuradunak dirulaguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen xede bererako.

c) Ez gauzatzea dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera.

d) Ez justifikatzea zegozkion xedeetarako aplikatu izana.

e) Oro har ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betekizunak.

2.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan araututako laguntzek ez dituzte betetzen EBren funtzionamendurako tratatua-ren 107.1 artikuluan ezarritako baldintza guztiak, eta, beraz, ez dira estatuaren laguntza, eta ez da beharrezkoa Europako batzordeari jakinaraztea eta helaraztea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Hezkuntzako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 25a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## I. ERANSKINA

HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEENTZAKO ETA UNIBERTSITATE-MAILAKOAK EZ DIREN  
IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

(\*) nahitaezko eremuak

### Datu pertsonalak

#### Titularra

Erakundearen izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

#### Ordezkarria

Izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Lehenengo abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Sexua  Gizona

Emakumea

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

### Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea \*

Elektronikoa

### Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Abisu-erako bidea	Telefono-zenbakia/Posta elektronikoa
SMSa	
Helbide elektronikoa	

**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza \***

- Euskara    Gaztelania

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

- Bateragarritasun-adierazpenak
  - Ez du xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jaso administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
  - Administrazio publikoren bati edo entitate pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu eta eman egin diote (gai hori «Beste finantzaketa-iturri batzuk» agirian zehaztu behar duzu).
  - Administrazio publikoren bati edo entitate pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu eta ebazpena jasotzeko dago (gai hori «Beste finantzaketa-iturri batzuk» agirian zehaztu behar duzu).
- Beste deklarazio batzuk
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistroan inskribatuta dago.
  - Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
  - Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, berariaz aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak<sup>1</sup>.
  - Egiazkoak dira eskabide honetan eta honi gehitutako agirietan adierazitako datuak.
  - Eskatzailea ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan.
  - Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ditu.

---

<sup>1</sup>Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena betez.

**Lehen aurkeztutako agiriak**

Baimena ematen dut agiri hauek kontsultatzeko:

Agiriaren izena	Entregatzeko eguna	Agiria hartu zuen organoa

**Baimenak.**

Araudi aplikagarriarekin bat etorritik, prozedura honen organo izapidegileak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko (GSDN) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- HONEN KONTRA NAGO: prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztatzearen kontra (39/2015 Legearen 28. artikulua). Kontra egonez gero, prozeduran behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta beharrezko egiaztapenak egin ere.

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ (a)

(Lekua)

(Eguna)

(Sinadura)

2021eko ekainaren 8a, asteartea

## HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEENTZAKO ETA UNIBERTSITATE-MAILAKOAK EZ DIREN IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK

## II. ERANSKINA: AURREKONTUA

## 1. Elkartearen datuak

Izen osoa		IFK	
Emaila		Erregistroan data	
Harremanetarako telef.		Erregistro zk	

## 2. Diharduen zentroaren izena

Ikastetxearen izena			
Ikastetxearen kodea		Ikasleen % hau hartzen duela adierazten du:	

Federazio hauetakoa dela adierazten du:

<input type="checkbox"/>	FAPACNE	<input type="checkbox"/>	BIGE	<input type="checkbox"/>	BIDELAGUN	<input type="checkbox"/>	FECAPP
<input type="checkbox"/>	DENON ESKOLA	<input type="checkbox"/>	BIGEF	<input type="checkbox"/>	ELKARGARRI	<input type="checkbox"/>	GIDARI
<input type="checkbox"/>	FEGUIAPA	<input type="checkbox"/>	GIGEF	<input type="checkbox"/>	GETEK	<input type="checkbox"/>	BESTEAK
<input type="checkbox"/>	IKASGE	<input type="checkbox"/>	FAPAE	<input type="checkbox"/>	BAIKARA	<input type="checkbox"/>	EZ FEDERATUA

## 3. Jardueren justifikazioa: 3.1 artikulua (zehaztu lerro bat jarduera bakoitzeko)

## Estrategia-lerroak

- L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta
- L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan
- L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

## 3.1. a) Ikasleei eta gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak

Jarduera bakoitzaren izena	Estrat-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Bestelakoak (zehaztu)	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%100)
						0,00
						0,00
						0,00

Guztizko partziala	0,00	0,00
--------------------	------	------

## 3.1.b) Jarduera-gastuak eta azpiegitura-gastuak

Kontzeptua	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%50)
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00

Guztizko partziala	0,00	0,00
--------------------	------	------

## 3.1.c) Ikasleei eta gurasoei zuzendutako jarduera osagarrien gastuak (3.1.a puntukoak ez direnak)

Jarduera bakoitzaren izena	Estrat-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Bestelakoak (zehaztu)	Zenbatekoa	Laguntza zenbatekoa (%100)
						0,00
						0,00

Guztizko partziala	0,00	0,00
--------------------	------	------

ESKATUTAKOIA, GUZTIRA	0,00
Eskatutako zenbatekoaren gaineko prestakuntza-ehunekoia	0,0%

## III. ERANSKINA

## BESTE FINANTZAKETA-ITURRI BATZUK.

Ba al daukazu beste finantzaketa-iturririk?	<input type="radio"/> Bai	<input type="radio"/> Ez
<b>Zeintzuk?</b>	<b>Emandako zenbatekoa</b>	<b>Eskatutako zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>		

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai	<input type="radio"/> Ez
<b>Zer erakunderi?</b>	<b>Eskatutako zenbatekoa</b>	
<b>Guztira</b>		

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ (a)

(Lekua)

(Eguna)

(Sinadura)



2021eko ekainaren 8a, asteartea

**HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEENTZAKO ETA UNIBERTSITATE-MAILAKOAK EZ DIREN IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASOEN  
ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK**

**IV. ERANSKINA: GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

**1. Elkartearen datuak**

Izen osoa		IFK	
Emaila		Erregistroan data	
Harremanetarako telef.		Erregistro zk	

**2. Diharduen zentroaren izena**

Ikastetxearen izena	
Ikastetxearen kodea	

**3. Jardueren justifikazioa: 3.1 artikulua (zehazu lerro bat jarduera bakoitzeko)**

3.1. a) Ikasleei eta gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenba-tekoa (% 100)
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
<b>Guztizko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

3.1.b) Jarduera-gastuak eta azpiegitura-gastuak

Kontzeptua	Zenbatekoa	Laguntza zenba-tekoa (% 100)
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00
<b>Guztizko partziala</b>		<b>0,00</b>

3.1.c) Ikasleei eta gurasoei zuzendutako jarduera osagarrien gastuak (3.1.a puntukoak ez direnak)

Jarduera bakoitzaren izena	Estrategia-lerroa	Hartzaileak	Egotz daitezkeen kontzeptuak	Zenbatekoa	Laguntza zenba-tekoa (% 50)
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
					0,00
<b>Guztizko partziala</b>				<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

<b>ESKATUTAKOAK, GUZTIRA</b>		<b>0,00</b>
<b>Eskatutako zenbatekoaren gaineko prestakuntza-ehunekoak</b>		<b>0,0%</b>

## V. ERANSKINA

## ORDEZKARITZA EMATEA

Zer prozeduraren gainean ematen den ordezkaritza: \_\_\_\_\_

## Ordezkaritza ematen duen pertsonaren /erakundearen datuak

## Titularra

Izena / Erakundearen izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa:  
\_\_\_\_\_

Sexua  Gizona  
 Emakumea

## Legezko ordezkaria (erakundearen kasuan bakarrik)

Izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

Sexua  Gizona  
 Emakumea

## Ordezkaritza onartzen duen pertsonaren /erakundearen datuak

## Titularra

Izena / Erakundearen izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa:  
\_\_\_\_\_

Sexua  Gizona  
 Emakumea

**Legezko ordezkaria (erakundearen kasuan bakarrik)**

Izena \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Identifikazio-agiria \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

Sexua  Gizona  
 Emakumea**Prozedura honetan, ordezkari den pertsonak/erakundeak honako ahalmen hauek gauzatu ditzake:**

- Eskaerak egitea
- Eskatutako datuak eta agiriak aurkeztea
- Era guztietako komunikazioak/jakinarazpenak jasotzea
- Idazkiak eta alegazioak aurkeztea
- Eta, orokorrean, prozedura horretan ordezkatupei dagozkien jarduera guztiak egitea

**Ordezkaritza onartzea**

Idazki hau sinatuta, ordezkari den pertsonak/erakundeak onartu egiten du emandako ordezkari-tza, eta aitortzen du ordezkari-tza eman duen pertsonaren sinadura benetakoa dela.

**Aplikatzekoak diren arauak**

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikulua.

...(tokia) ..... (data) .....

Ordezkatua

Ordezkaria